5.– Valoración y reconocimiento del hecho de mantener una buena condición física como base de unas mejores condiciones de salud.

6.– Actitud crítica ante el consumismo «artístico» y respeto hacia los gustos estéticos de las personas que nos rodean.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1.– Analizar mensajes en los que se integren códigos lingüísticos y no lingüísticos (plástico, icónico, gestual, musical...), atendiendo a las principales características de la situación comunicativa y a los procedimientos expresivos utilizados.

Se trata de verificar si el alumno-a, a partir de los elementos lingüísticos y de los no lingüísticos (plásticos, icónicos, musicales, corporales, de disposición espacial...) que los acompañan, es capaz de formarse una opinión personal tanto del contenido como de la forma, en textos, por ejemplo, provenientes de los medios de comunicación social o presentes en su entorno y vida cotidiana. De igual manera, y en un plano más general, se pretende evaluar si valora la existencia de los diferentes lenguajes como medio de enriquecimiento de las posibilidades expresivas y de cultivo de la sensibilidad personal.

2.– Elaborar proyectos colectivos de producción audiovisual, participando activa y cooperativamente en su realización y valorando si los recursos y opciones tomadas durante el proceso son adecuados a la finalidad de comunicación de partida.

Con este criterio se trata de valorar si el alumno o la alumna es capaz de implicarse activamente en un trabajo grupal de producción audiovisual, si reacciona cooperativamente ante las dificultades surgidas en el proceso y es capaz de valorar la pertinencia y funcionalidad de las opciones y decisiones tomadas, así como la adecuación de los recursos y medios empleados, teniendo en cuenta las intenciones comunicativas fijadas previamente. si se

lazionatzen den ere ebaluatu beharko da, esate baterako, antzerki obra baten antzezpenean, malgutasuna, interesa, solidaritatea eta tolerantzia erakutsiz, eta inhibizio eta aurriritziak gaindituz.

3.– Jarduera fisikoa egiteak, higienea zaintzeak eta elikadura orekatua egiteak bizimodu osasuntsuaren erakusle gisa norberaren nahiz taldearen osasunerako suposatzen dituzten onurak baloratzea, gizarteak eta komunikabideek eskaintzen dituzten gorputz-eredu diskriminatzaileak arbuiatuz.

Irizpide honen bidez, ikasleak bizimodu osasuntsua osatzen duten oinarrizko adierazle edo elementuak ezagutzen dituen ebaluatu nahi da. Ondoko hauek dira elementu horiek: norberaren aukera eta sasoiaren araberako jarduera fisikoa, higiene eta garbitasun pertsonala nahiz kolektiboa, atsedena, neurri prebentiboak eta elikadura on eta zaindua. Bestalde, ikasleak bere bizitza pertsonalean eta besteekiko harremanean elementu hauek aintzat hartzen dituen ere ebaluatu beharko da. Halaber, gizartean eta, batik bat, komunikabideen bidez eskaintzen diren gorputz-ereduak kritikoki baloratzen dituen eta pertsonak baloratzean eredu hauek eraginik ba ote duten berarengan ere ebaluatuko dugu, norberaren gorputz-irudiaz, gaitasunez eta mugez jabetuz.

4.– Entzunaldien bidez, musikagile eta obra esanguratsuen oinarrizko ezaugarri musikalak aztertzea, produkzio hauek garai eta kultura jakin baten islada gisa eta norberaren nahiz gizartearen aberastasun-iturri gisa apreziatuz.

Irizpide honen bidez, musikaren historiako obra garrantzitsuak edo hauen zatiak entzutean, ikaslea obra hauen ahots eta instrumentuei buruzko oinarrizko ezaugarri melodiko eta erritmikoak antzemateko gai den ebaluatu nahi da, obra hauek garai eta gizarte jakin baten ideia eta gustuen islada gisa hartuz.

5.– Taldeko interpretazio-jardueretan parte hartzea, ahots eta/edo instrumentuen afinazio egokia lortu ahal izateko, gainerako partehartzaileen lana errespetatuz.

Irizpide honen bidez, ikasleak taldean integratzeko eta, taldeko gainerako kideen ekarpenak onartu eta baloratzeko jarrera positiboa erakutsiz, taldeko kide guztiei aurrera egiten lagunduko dien interpretazio musikala lortzeko duen interesa ebaluatu nahi da.

relaciona con otras personas, con ocasión, por ejemplo, de alguna representación dramática, adoptando actitudes de flexibilidad, interés, solidaridad y tolerancia, superando inhibiciones y prejuicios

3.– Valorar los beneficios que para la salud individual y colectiva tienen los hábitos de actividad física, de higiene y de alimentación equilibrada, como indicadores de un modo de vida saludable, rechazando aquellos modelos corporales discriminatorios que la sociedad y los medios de comunicación ofrecen.

Con este criterio se trata de valorar si el alumno o alumna es consciente de cuáles son algunos de los indicadores o factores básicos que forman parte de una vida saludable, como son la actividad física, según las posibilidades y condiciones de cada cual, la higiene y la limpieza personal y colectiva, el descanso, las medidas preventivas y una buena y cuidada alimentación, así como si los tiene en cuenta en su vida personal y en su relación con los demás. Así mismo, se pretende conocer si es consciente y valora críticamente los diferentes modelos corporales que se ofrecen en la sociedad, especialmente a través de los medios de comunicación social, así como si estos modelos le influyen en sus opiniones y en la valoración sobre las personas, tomando conciencia de la propia imagen corporal, sus límites y capacidades.

4.– Analizar, a través de audiciones, algunas características musicales básicas de obras y compositores y compositoras representativas, apreciando estas producciones como reflejo de una época y una cultura y como fuente de enriquecimiento personal y social.

Con este criterio se trata de valorar si, en la audición de algunas obras o fragmentos de obras fundamentales de la historia de la música, el alumno o la alumna es capaz de reconocer algunas características melódicas y rítmicas básicas en sus formas vocal e instrumental, percibiéndolas como reflejo de las ideas y gustos de una época y una sociedad.

5.– Participar en actividades de interpretación en grupo con la finalidad de contribuir a una adecuada afinación del conjunto vocal y/o instrumental, respetando el trabajo de los demás participantes.

Con este criterio se trata de comprobar el interés del alumno o la alumna por conseguir una adaptación al grupo y obtener una interpretación musical que favorezca el progreso de todos sus componentes, mostrando actitudes de aceptación y valoración de las aportaciones de las demás personas del grupo.

# ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA EREMUA

## ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA EREMUA

### 1.– SARRERA

Gaur egungo kulturan zientziak eta teknologiak duten garrantzia ulertzeko, aintzat hartu behar dugu gurea bezalako gizarteen garapen ekonomikoa osagai zientifiko-teknologikoan onarritua dagoela neurri handi batean. Garapen ekonomiko honek eta honi esker lorturiko bizi-kalitateak, ordea, arazo handiak sortu ditu, garapen teknologikoaren erabilera okerraren ondorioz: ingurugiroari erasoak, bilakaera urriagoko herri eta kulturen menpekotasuna, lehengaiak ahitzea, neurriz kanpoko garapena eta kontsumismoa. Arazo hauek konpontzeko, beharrezkoa da gizarteko baloreak aldatzea eta jarrera kritiko eta arduratsua garatzea ezagutza zientifiko-teknologikoen erabileraren aurrean.

Ildo honetan, eremu honen helburu nagusia ikasleei errealitatea era objektibo, zehatz eta kontrastatuan aztertzeko beharrezko diren tresnak lortzen laguntzea eta zientzia eta teknologiaren balio funtzionala erakustea da, honela errealitatearen irakurketa kritikoa egiteko eta, hortaz, bertan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Etapa honetan, ezagutza guzti hauek eremu bakar batean bildu dira, fenomeno eta gertakari zientifiko-teknologikoei buruzko ikuspegi orokorra mantendu ahal izateko, bertan hauen eta gizarte-egituraren arteko erlazioak azpimarratuko direlarik. Pertsona helduek jakintza zientifiko-teknologikoko arlo desberdinek kontzeptu-esparru eta ikertu eta interpretatzeko prozedura komunak erabiltzen dituztela deskubritu dezaten da eremu honen helburua. Honetarako, nahitaezkoa da matematika, zientzia eta teknologia gaiekiko jarrera positibo, ireki eta kritikoa sustatu eta sortzea, honela pertsona helduek gai hauek duten garrantzia uler dezaten, beren arazoak eta beren ingurunekoak interpretatu eta hauen aurrean erabakiak hartu ahal izateko.

Eremu honek garrantzi handia du etapa honetako helburu orokorretan adierazten diren gaitasunak lortu eta garatzeko: Hala nola: mundu fisikoa, izaki bizidunak, gertakari teknologikoak eta hauen arteko erlazioak hobeto ezagutzea; errealitatea ikertzeko eta arazoei era objektibo, zehatz eta kontrastatuan aurre egiteko prozedurak eta estrategiak garatzea; malgutasuna, zehaztasuna eta koherentzia sustatuko duten jarrerak garatzea, oreka pertsonala, norberaren gorputzaren ezaugarriak, mugak eta aukerak ezagutuz, izan ere, izaki bizidun garen neurrian, gure osasuna eta ongizatea zain-

# ÁMBITO CIENTÍFICO-TECNOLÓGICO

## ÁMBITO CIENTÍFICO-TECNOLÓGICO

### 1.– INTRODUCCIÓN

La importancia de la ciencia y la tecnología en la cultura actual, el desarrollo económico de sociedades como la nuestra está basado, en gran medida, en el componente científico-tecnológico. Este desarrollo económico y el consiguiente bienestar logrado, han supuesto también la aparición de grandes problemas derivados de un uso no adecuado del desarrollo tecnológico: agresiones al medio ambiente, sometimiento y dependencia de países y culturas menos evolucionadas, agotamiento de las materias primas, desarrollismo y consumismo. La solución a los mismos ha de estar en un cambio de valores sociales y en el desarrollo de una actitud crítica y responsable ante el uso de los conocimientos científicos-tecnológicos.

En este sentido, el objetivo primordial de este ámbito es ayudar a adquirir los instrumentos necesarios para indagar en la realidad de una manera objetiva, rigurosa y contrastada e introducir al alumnado en el valor funcional de la ciencia y la tecnología, permitiéndole hacer una lectura crítica de la realidad y, de esta forma, poder intervenir sobre ella.

En esta etapa, todos estos conocimientos se agrupan en un mismo ámbito con la finalidad de mantener una aproximación de conjunto a los fenómenos y hechos científico-tecnológicos, en la que se subrayan las relaciones y conexiones entre los mismos y la estructura social. El planteamiento del ámbito se orienta a que las personas adultas descubran la existencia de marcos conceptuales y procedimientos de indagación e interpretación comunes a los diferentes campos del saber científico-tecnológico, y ello exige favorecer y generar una actitud positiva, abierta y crítica hacia las matemáticas, la ciencia y la tecnología, a fin de percibir su utilidad para interpretar y tomar decisiones ante sus problemas cotidianos y los de su medio.

Este ámbito contribuye de forma decisiva al desarrollo y adquisición de las capacidades que se señalan en los objetivos generales de etapa, tales como: una mejor comprensión del mundo físico, de los seres vivos y de los hechos tecnológicos y de las relaciones existentes entre ambos; la adquisición de procedimientos y estrategias para explorar la realidad y afrontar problemas de manera objetiva, rigurosa y contrastada; la adopción de actitudes de flexibilidad, rigor y coherencia; el equilibrio personal, mediante el conocimiento de las características, limitaciones y posibilidades del propio cuer-

du eta hobetu egin behar den ingurunearekin ezartzen ditugun harremanen menpe egongo baita.

Eremu hau lantzean, eduki zientifikoek beren aplikazio teknikoekin duten harremana eta hauek gizartean duten eragina hartu beharko dira aintzat, batik bat ingurunean, inguru naturalean eta gizarte-egituran duten eragina, izan ere aplikazio tekniko hauek desoreka sozioekonomiko larriak eta ingurugiro arazo handiak dituen gizartea sortu baitute. Bestalde, pertsona helduek beren lanean bizi izandako aplikazio teknologikoak eta esperientzia jakinak aintzat hartuz, pertsona hauentzat esanguratsu izango diren prozedurazko eta jarrerazko edukiak landu beharko dira batik bat eremu honetan.

2.– HELBURUAK

1.– Gizakiaren gorputzaren funtzionamenduari buruzko ezagutzak erabiltzea, norberarengan nahiz gizartearengan giro osasuntsu eta osasungarria sustatuko duten gorputza zaintzeko ohiturak garatu eta sendotzeko.

2.– Eduki zientifiko eta teknologikoko talde-jardueren plangintzan eta egikaritzean parte hartzea, norberaren nahiz besteen ekarpenak baloratuz ezarritako helburuen arabera, jarrera malgu eta lankidetzaren aldekoa erakutsiz, jardueren garapenean erantzukizunez jokatuz eta diskriminazio-mota oro arbuiatuz.

3.– Mezu zientifiko eta teknologikoak behar bezala ulertu eta adieraztea, eremu honetako gaiei dagozkien hiztegia eta notazio- eta irudikapen-sistemak zehaztasunez erabiliz, eta komunikabideetan hauei ematen zaien erabilera kritikoki baloratuz.

4.– Norberaren ezagutzak, abileziak eta estrategiak ezagutu eta baloratzea, Zientzia, Matematika eta Teknologiarekin erlazionaturiko arazo eta egoera arruntei konfiantzaz eta autonomiaz aurre egiteko, gai hauen alderdi sortzaile, manipulagarri, estetiko edo erabilgarriez gozatuz.

5.– Eremu zientifiko-teknologikoarekin erlazionaturiko ezagutza, une historiko bakoitzaren ezaugarri eta beharretara loturik dagoen eta etengabeko bilakaera eta berrikuspena jasaten duen eraikuntza-prozesu gisa baloratzea.

6.– Ezagutza zientifiko, teknologiko eta matematikoak erabiltzea fenomeno natural eta objektu teknologiko nagusiak interpretatzeko.

7.– Zientziak eta Teknologiak gizakien bizimodua hobetzeko eginiko ekarpenak onartzea, jarrera kritiko eta arrazoitua erakutsiz erabilera okerrak naturan, gizakiarengan eta gizartean sortzen dituen arazoen aurrean.

po, en cuanto a organismo vivo, cuya salud y bienestar depende de sus relaciones con el medio, al cual, por otra parte, también es necesario cuidar y mejorar.

En el tratamiento del ámbito se ha de tener en cuenta las relaciones de los contenidos científicos con sus aplicaciones técnicas y las repercusiones sociales de las mismas, en especial las que afectan al entorno, al medio natural y a la estructura social, contribuyendo a la integración participativa en una sociedad altamente tecnificada, con desajustes socioeconómicos y grandes problemas medioambientales. Además, han de predominar los contenidos procedimentales y actitudinales con significación para la vida de la persona adulta que vive y experimenta unas determinadas aplicaciones tecnológicas y atesoran determinadas experiencias en dicho campo debido a su ocupación laboral dentro y fuera del hogar.

2.– OBJETIVOS

1.– Utilizar los conocimientos sobre el funcionamiento del cuerpo humano para desarrollar y afianzar hábitos de cuidado y salud corporal que propicien un clima, individual y social, sano y saludable.

2.– Participar en la planificación y realización de actividades en grupo, de contenido científico y técnico, valorando las aportaciones propias y ajenas en función de los objetivos establecidos, mostrando una actitud flexible y de colaboración, asumiendo responsabilidades en su desarrollo y rechazando todo tipo de discriminaciones.

3.– Comprender y expresar mensajes científicos y tecnológicos con propiedad, utilizando de una manera precisa y rigurosa el vocabulario y los sistemas de notación y representación propios de las materias del ámbito y valorando críticamente su utilización en los medios de comunicación.

4.– Conocer y valorar los propios conocimientos, habilidades y estrategias para afrontar con confianza y autonomía las situaciones problemáticas cotidianas relacionadas con la Ciencia, las Matemáticas y la Tecnología disfrutando con sus aspectos creativos, manipulativos, estéticos o utilitarios

5.– Valorar el conocimiento relativo al ámbito científico tecnológico como un proceso de construcción ligado a las características y necesidades de cada momento histórico y sometido a evolución y revisión continua.

6.– Utilizar conocimientos científicos, tecnológicos y matemáticos para interpretar los principales fenómenos naturales y objetos tecnológicos.

7.– Reconocer las aportaciones de la Ciencia y la Tecnología para la mejora de la calidad de vida de los seres humanos adoptando una actitud critica y razonada ante los problemas que plantea el mal uso que de ellas se haga para la naturaleza, el ser humano y la sociedad.

8.– Inguruneko eta eguneroko bizimoduko arazoak konpontzeko estrategia desberdinak prestatu eta aplikatzea, zientzia eta teknologia eremuari dagozkion prozedurak eta jarrerak erabiliz eta arazo horiek konpontzeko jarraituriko prozesuaren balorazio kritikoa eginaz.

9.– Zientzia eta teknologia eremuko datuak eta informazioak bilatu, jaso, antolatu eta tratatzeko teknikak erabiltzea, problemak soluzionatu eta lanak eta ikerketak egitean, teknologia berriek eskaintzen dizkiguten baliabideak ere erabiliz, beharrezko gertatzen denean.

10.– Gure garaikoak diren eta gure ingurunean dauden gai zientifiko eta teknologikoekiko jakinmina izatea eta gai horiek ikertzeko jarrera erakustea, iritzi pertsonal eta arrazoituak emanaz eta prestakuntza zientifikoak eta pentsamendu zientifikoari dagozkion baloreak erabiltzeak duen garrantzia baloratuz.

3.– EDUKI-MULTZOAK

1.– PROBLEMAK SOLUZIONATZEA ETA ERABAKIAK HARTZEA

Multzo hau zeharkakoa da eta bertako edukiak aintzat hartu beharko dira gainerako eduki-multzo guztien garapenean eta programazioa diseinatzean.

A) Kontzeptuzko edukiak

1.– Problemen soluzioa bilatzeko faseak: problema identifikatu eta aztertzea; informazioa bilatzea; hipotesiak eta/edo alternatibak planteatzea; hipotesiei eta estrategiei buruzko erabakiak hartzea; ondorioak ateratzea; soluzio/hipotesia eta jarraituriko prozesua ebaluatzea/ziurtatzea; txostenak edo memoriak erredaktatzea.

B) Prozedurazko edukiak

1.– Problemak antzeman eta formulatzea, egoera errealak abiapuntutzat harturik.

2.– Eredu matematiko, zientifiko eta teknologikoak kritikoki erabiltzea egoera errealak deskribatu eta hauen bilakaera aurreikusteko.

3.– Problemak soluzionatzeko protokolo indibidualak osatu eta aztertzea (motibazioa, aukera,...).

4.– Problemak soluzionatzeko protokoloak osatu eta aztertzea talde-lanetarako (taldea osatzea, lanaren banaketa, denbora-banaketa orekatua, prozesuaren azterketa,...).

5.– Zientzia eta teknologia eremuko arazoak, objektuak eta sistemak aztertzea.

8.– Elaborar y aplicar diferentes estrategias en la resolución de problemas de su entorno y vida cotidiana, utilizando procedimientos y actitudes propios del ámbito científico-tecnológico y valorando críticamente el proceso seguido para su resolución.

9.– Utilizar técnicas de búsqueda, recogida, organización y tratamiento de datos e informaciones del ámbito científico y tecnológico para la resolución de problemas y realización de trabajos e investigaciones haciendo uso, cuando sea conveniente, de los medios que pone a nuestro alcance las nuevas tecnologías.

10.– Mantener una actitud de indagación y curiosidad hacia cuestiones científicas y tecnológicas básicas de nuestra época y presentes en el entorno cotidiano elaborando criterios personales y razonados sobre ellas y valorando la importancia de la formación científica y de la utilización de valores propios del pensamiento científico.

3.– BLOQUES DE CONTENIDO

1.– LA RESOLUCIÓN DE PROBLEMAS Y LA TOMA DE DECISIONES.

Este bloque tiene carácter transversal y sus contenidos deberán tenerse en cuenta en el desarrollo de todos los demás bloques de contenidos y en el diseño de la programación.

A) Contenidos conceptuales

1.– Fases de la resolución de problemas: identificación y análisis del problema; búsqueda de información; planteamiento de hipótesis y/o alternativas; toma de decisiones acerca de las hipótesis y de las estrategias de resolución, elaboración de conclusiones; evaluación/verificación de la solución/hipótesis y del proceso seguido; redacción de informes o memorias finales.

B) Contenidos procedimentales

1.– Reconocimiento y formulación de problemas a partir de situaciones reales.

2.– Utilización crítica de modelos matemáticos científicos y tecnológicos para describir situaciones reales y predecir su evolución.

3.– Elaboración y análisis de protocolos individuales para resolución de problemas (motivación, oportunidad, ...).

4.– Elaboración y análisis de protocolos de resolución de problemas para trabajo en grupo (la formación del grupo, el reparto del trabajo, distribución de tiempos, análisis del proceso,...).

5.– Análisis de problemas, objetos y sistemas del ámbito científico-tecnológico.

6.– Informazio-iturri desberdinak erabiltzea arazoak konpontzeko.

7.– Hipotesiak formulatzea, alternatibak planteatzea eta baldintzak ezartzea.

8.– Aldez aurretik ezarritako hipotesiak, alternatibak eta usteak justifikatu edo ezeztatzea ahalbidetuko duen plan bat prestatu eta osatzea arazoak konpontzeko.

9.– Problemak soluzionatzeko diseinatutako plana exekutatzea (ekintza-estrategia desberdinak martxan jartzea, bakarka nahiz taldean).

10.– Emaitzak eta problemen soluzioa bilatzeko aplikatutako prozesuak ziurtatu eta alderatzea.

11.– Txostenak eta memoriak egitea.

12.– Teknika heuristikoak erabiltzea problemak soluzionatzeko (analogiak ezarri, kasu errazagoak aztertu,...).

13.– Problemak soluzionatzeko metodo bereziak erabiltzea (zuhaitz-diagramak, grafikoak, oinarrizko konbinatoria, irudikapen grafikoa, tresna eta erreminten erabilera, prozesu teknologikoak,...).

14.– Historian zehar eduki matematiko, zientifiko eta teknologiko berrietarako abiapuntu izan diren arazo batzuk konpontzea, gerora eginiko aplikazioekin erlazionatuz.

15.– Kalkulagailua eta ordenadorea erabiltzea problemak soluzionatzeko.

C) Jarrerazko edukiak

1.– Problemak soluzionatzeko besteek proposatutako estrategia eta soluzioekiko interesa eta errespetua.

2.– Irmotasuna eta pertseberantzia problema matematiko, zientifiko eta teknologikoetarako soluzioak bilatzean eta aurkitutako soluzioak hobetzean.

3.– Erdibideko emaitzak edota azken emaitza sistematikoki berrikustearen aldeko jarrera.

4.– Norberaren gaitasunetan eta lortutako ezagutzetan konfiantza izatea, problemei aurre egin eta kalkuluak egiteko.

5.– Zehaztasuna, ordena eta garbitasuna emaitzak aurkeztean eta problemak soluzionatzeko jarraituriko prozesuan.

6.– Behaketa eta azterketa sistematikoaren, hipotesiak sortzearen eta arazo baten alternatiba desberdinen azterketaren aldeko jarrera.

7.– Malgutasuna arazoei ikuspuntu desberdinetatik aurre egin ahal izateko.

6.– Utilización de diferentes fuentes de información para la resolución de problemas.

7.– Emisión de hipótesis, planteamiento de alternativas y establecimiento de condiciones.

8.– Concebir y diseñar un plan para resolver problemas, que permita justificar o refutar, hipótesis, alternativas, conjeturas, ...que hayan sido establecidas «a priori»

9.– Ejecución del plan diseñado para la resolución de problemas (puesta en práctica de diferentes estrategias de actuación tanto a nivel individual como en grupo).

10.– Verificación y contraste de resultados y procesos de resolución aplicados.

11.– Realización de informes y memorias.

12.– Utilización de técnicas heurísticas para la resolución de problemas (establecer analogías, resolver casos más sencillos, ...)

13.– Utilización de métodos específicos de resolución de problemas (diagramas de árbol, grafos, combinatoria básica, representación gráfica, utilización de herramientas y materiales, procesos tecnológicos, ...)

14.– Resolución de algunos problemas que hayan sido punto de partida para nuevos contenidos matemáticos, científicos y tecnológicos a lo largo de la historia, relacionándolos con sus aplicaciones posteriores.

15.– Uso de la calculadora y el ordenador en la resolución de problemas.

C) Contenidos actitudinales

1.– Interés y respeto por las estrategias y soluciones a problemas distintas de las propias.

2.– Tenacidad y perseverancia en la búsqueda de soluciones a los problemas matemáticos, científicos y tecnológicos, y en la mejora de las ya encontradas.

3.– Disposición favorable a la revisión sistemática de los resultados intermedios o el resultado final.

4.– Confianza en las propias capacidades y los conocimientos adquiridos para afrontar problemas y realizar cálculos.

5.– Rigor, orden, limpieza, ... en la presentación de los resultados y el proceso seguido en la resolución de problemas.

6.– Disposición favorable a la observación y análisis sistemático, la generación de hipótesis y al estudio de diferentes alternativas de un problemas.

7.– Flexibilidad para enfrentarse a situaciones problemáticas desde distintos puntos de vista.

8.– Lan desberdinak planifikatu eta egitean talde-lanak duen garrantzia onartu eta baloratzea.

2.– ERREALITATEA IRUDIKATZEA

A) Kontzeptuzko edukiak

1.– Zenbakiak eta algebra-hizkuntza. Algoritmoak.

- Ondokoetarako erabiltzen diren zenbaki-moten esanahia eta erabilera: zenbatzeko, neurtzeko, ordenatzeko, kodifikatzeko, kantitateak, partizioak edo magnitudeen arteko erlazioak adierazteko.
- Eragiketak: batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketaren esanahia eta erabilera testuinguru desberdinetan zenbaki natural, oso, hamartar eta zatikizkoekin.
- Eragiketen hierarkia. Parentesien esanahia eta erabilera.
- Zenbakiak irudikatzeko erabiltzen diren letren esanahia eta erabilera.
- Formulak eta ekuazioak.

2.– Magnitude proportzionalak.

- Magnitudeen proportzionaltasunaren esanahia testuinguru desberdinetan.
- Portzentaiak.

3.– Magnitudeen neurketa.

- Magnitudeak neurtzea. Neurketa-sistemak. Sistema metriko hamartarra.
- Neurketa-tresnak. Perdoia.
- Zeharkako neurketak. Hurbilketa. Neurrien estimazioa. Kantitateen hurbilketa eta estimazioa.

4.– Espazioaren antolaketa eta irudikapena.

- Elementu geometrikoak planoan eta espazioan.
- Figurak eta gorputzak.
- Antzeko figurak: eskala bidezko irudikapena.
- Irudikapen grafikoaren erabilera ideiak azaltzeko.

5.– Funtzio eta grafikoen hizkuntza.

- Funtzioa, batera aldatzen diren bi magnitudeen arteko erlazio gisa.
- Funtzio bat irudikatzeko erak: hitzezkoa, grafikoa, tabularra eta algebraikoa.
- Funtzio-motak: funtzio lineala, koadratikoa,...

6.– Informazio estatistikoaren interpretazioa, irudikapena eta tratamendua.

- Fenomeno estatistikoei buruzko informazioa eta datuak biltzea.
- Komunikabideetan eta ezagutza zientifikoan gehien erabili ohi diren grafiko estatistikoak.
- Parametro estatistikoak.

8.– Reconocimiento y valoración de la importancia del trabajo en equipo en la planificación y realización de las diferentes tareas.

2.– LA REPRESENTACIÓN DE LA REALIDAD.

A) Contenidos conceptuales

1.– Los números y el lenguaje algebraico. Algoritmos.

- Significado y uso de los diferentes tipos de números para: contar, medir, ordenar, codificar, expresar cantidades, particiones o relaciones entre magnitudes.
- Las operaciones: Significado y uso de la suma, resta, multiplicación y división en distintos contextos con números naturales, enteros, decimales y fraccionarios.
- La jerarquía de las operaciones. Significado y uso de los paréntesis.
- Significado y uso de las letras para representar números.
- Fórmulas y ecuaciones.

2.– Magnitudes proporcionales:

- Significado de la proporcionalidad de magnitudes en diferentes contextos
- Porcentajes

3.– La medida de magnitudes

- Medición de magnitudes. Sistemas de medida. Sistema métrico decimal.
- Instrumentos de medida. Margen de error.
- Mediciones indirectas. Mediadas aproximadas. Estimación de medidas. Aproximación y estimación de cantidades.

4.– Organización y representación del espacio.

- Los elementos geométricos en el plano y en el espacio.
- Figuras y cuerpos.
- Figuras semejantes: la representación a escala.
- Uso de la representación gráfica en la transmisión de ideas.

5.– El lenguaje de funciones y gráficas.

- Función como relación entre dos magnitudes que varían de forma simultánea.
- Formas de representación de una función: verbal, gráfica, tabular y algebraica.
- Tipos de funciones: función lineal, cuadrática, ...

6.– La interpretación, representación y tratamiento de la información de tipo estadístico.

- Información y recogida de datos sobre fenómenos de tipo estadístico.
- Gráficos estadísticos más usuales en los medios de comunicación y en el conocimiento científico.
- Parámetros estadísticos.

B) Prozedurazko edukiak

1.– Eremuari dagozkion problemak ahoz formulatzea, hizkuntza desberdinak erabiliz (zenbakizkoa, algebraikoa, geometrikoa, grafikoa,...), zein terminoetan planteatzen diren eta soluzionatzeko erabilitako prozesua eta kalkuluak formulatzea, beste prozesu posible batzuekin alderatuz.

2.– Zenbaki oso, hamartar eta zatiki errazen arteko konparaketa.

3.– Batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketarako ohiko algoritmoak, eragiketen hierarkia eta propietateak eta parentesiak erabiltzeko arauak erabiltzea zenbaki oso, hamartar eta zatiki errazekin eginiko kalkulu idatzietan.

4.– Algebrako formulak eta hizkuntza erabiltzea egoera desberdinak deskribatzeko.

5.– Algoritmoak erabiltzea (algebraikoak, zenbakizkoak, grafikoak,...) ekuazioak egiteko.

6.– Magnitude desberdinen arteko proportzionaltasuna eta hauetako batzuen terminologia berezia identifikatzea eguneroko bizimoduko egoeretan (interesa, nahasketak, tasak, indizeak, ratioak, eta abar), eta prozedura desberdinak erabiltzea proportzionaltasun-kalkuluak egiteko (konbertsiofaktorea, hiruko erregela, hainbestekoa, taulak eta grafikoak erabiltzea,...).

7.– Neurtzeko ohiko tresnak abileziaz erabiltzea, perdoiak akotatuz magnitude bat estimatu, neurtu edo hurbiltzean.

8.– Sistema metriko hamartarra eta magnitude bereko unitate batzuetatik besteetara pasatzeko algoritmoak erabiltzea, objektuen tamainari buruzko informazioa interpretatu eta azaltzeko.

9.– Figura eta gorputz geometrikoak identifikatzea.

10.– Eredu geometrikoak, eskemak, planoak eta maketak egitea planoan nahiz espazioan, kasu bakoitzari dagozkion eskala, tresna, material eta teknikak erabiliz.

11.– Figura eta gorputz geometrikoen arteko antzekotasuna identifikatzea, posible denean erabilitako eskala-faktorea lortuz.

12.– Taula numerikoak, irudikapen grafikoak eta espresio funtzionalak erabili eta osatzea, testuinguruaren eta dagokien fenomenoaren arabera.

13.– Hizkuntza grafiko eta estatistikoa erabiltzea ingurune sozial, ekonomiko eta zientifikoko fenomenoak deskribatzeko, hiztegi eta sinbolo egokiak erabiliz.

14.– Banaketa estatistikoa deskribatzeko parametrorik egokienak hautatu eta kalkulatzea, testuinguruaren eta datuen izaeraren arabera.

B) Contenidos procedimentales:

1.– Formulación oral de problemas relativos al ámbito haciendo uso de diferentes lenguajes (numérico, algebraico, geométrico, gráfico, ...), de los términos en los que se plantean y del proceso y cálculos utilizados para resolverlos, confrontándolos con otros posibles.

2.– Comparación entre números enteros, decimales y fracciones sencillas.

3.– Utilización de los algoritmos tradicionales de suma, resta, multiplicación y división , la jerarquía y propiedades de las operaciones y de las reglas de uso de los paréntesis en cálculos escritos con números enteros, decimales y fracciones sencillas.

4.– Uso de las fórmulas y el lenguaje algebraico para la descripción de diferentes situaciones.

5.– Utilización de algoritmos (algebraicos, numéricos, gráficos, ...) para resolver ecuaciones.

6.– Identificación en la vida cotidiana de la proporcionalidad entre diferentes tipos de magnitudes y de la terminología específica de algunas de ellas (interés, mezclas, tasas, índices, ratios, etc.) y utilización de diferentes procedimientos (factor de conversión, regla de tres, tantos por algo, manejo de tablas y gráficos ...) para efectuar cálculos de proporcionalidad.

7.– Utilización diestra de los instrumentos de medida habituales, acotando los errores al estimar, medir o aproximar una magnitud.

8.– Utilización del sistema métrico decimal y los algoritmos de paso de unas unidades a otras de la misma magnitud, para interpretar y trasmitir informaciones sobre el tamaño de los objetos.

9.– Identificación de figuras y cuerpos geométricos.

10.– Construcción e interpretación de modelos geométricos, esquemas, planos y maquetas en el plano y en el espacio, utilizando la escala, los instrumentos, los materiales y las técnicas adecuadas a cada caso.

11.– Identificación de la semejanza entre figuras y cuerpos geométricos, obteniendo el factor de escala utilizada cuando ello sea posible.

12.– Utilización y elaboración de tablas numéricas, representaciones gráficas y expresiones funcionales, en función del contexto y el fenómeno al que se refieren.

13.– Utilización e interpretación del lenguaje gráfico y estadístico para describir fenómenos del entorno social, económico, científico ...., haciendo uso del vocabulario y los símbolos adecuados.

14.– Elección y cálculo de los parámetros más adecuados para describir una distribución, estadística en función del contexto y de la naturaleza de los datos.

15.– Populazio baten portaerari buruzko konjeturak formulatzea, lagin baten bidez lorturiko emaitzen eta laginaren adierazgarritasunaren oinarrizko azterketaren arabera.

16.– Falaziak antzematea, hizkuntza estatistiko eta probabilistikoak erabiltzen dituzten proposizioak formulatzean.

17.– Problemak identifikatzea testuinguru desberdinetan (zenbakizkoak, proportzionaltasunekoak, geometrikoak,...), ezagutzen diren elementuak eta ezagutu nahi direnak eta elementu garrantzitsuak eta ez-garrantzitsuak bereiziz.

18.– Kalkulagailua eta kalkuluak egiteko beste tresna batzuk erabiltzea zenbakizko kalkuluak egiteko, tresna hau erabiltzea komeni den erabakiz, egin beharreko kalkuluen konplexutasunaren eta emaitzetan behar den zehaztasun-mailaren arabera.

C) Jarrerazko edukiak:

1.– Matematikaren eta hizkuntza matematikoaren zehaztasuna, sinpletasuna eta erabilgarritasuna baloratzea eguneroko bizimoduko eta ezagutza zientifiko eta teknologikoko hainbat egoera irudikatu, komunikatu edo soluzionatzeko.

2.– Sentsibilitatea, interesa eta balorazio kritikoa, matematikako informazio eta mezuen eta hauek erabiltzen diren eren aurrean.

3.– Kalkulu eta ikerketa matematikoak egiteko kalkulagailuaren eta kalkuluak egiteko beste tresna batzuen erabilgarritasuna onartzea eta kritikoki baloratzea.

4.– Norberaren gaitasunetan konfiantza izatea problemak soluzionatzeko eta zenbakizko kalkulu eta estimazioak egiteko.

5.– Neurketak egin edo estimatzearen aldeko jarrera, egoerak hala eskatzen duenean.

6.– Sentsibilitatea erakustea eta arretaz eta zehaztasunez jokatzea neurketak egiteko tresnak erabiltzean eta neurketak egitean (neurri zuzenen emaitzen berrikuspen sistematikoa, emaitzak onartu ala gaitzetsiz aurreikusitako baloreetara egokitzen diren ala ez aztertu ondoren, neurketetako emaitzak erabilitako neurketa-unitateak azalduz adierazten ohitzea,...).

7.– Magnitude eta fenomenoen arteko erlazioak ikertzeko jakinmina.

3.– GIZAKIAK ETA OSASUNA

A) Kontzeptuzko edukiak:

1.– Izaki bizidunaren ezaugarriak.

2.– Materia biziaren antolaketa-mailak. Organismoak sistema gisa: sistemak, aparatuak eta organoak.

15.– Formulación de conjeturas sobre el comportamiento de una población de acuerdo con los resultados relativos a una muestra de la misma y análisis elemental de su representatividad.

16.– Detección de falacias en la formulación de proposiciones que utilizan el lenguaje estadístico y probabilístico.

17.– Identificación de problemas en diferentes contextos (numéricos, de proporcionalidad, geométricos, ...) diferenciando los elementos conocidos de los que se pretende conocer y los relevantes de los irrelevantes.

18.– Utilización de calculadora u otros instrumentos de cálculo para la realización de cálculos numéricos, decidiendo sobre la conveniencia de usarla en función de la complejidad de los cálculos a realizar y de la exigencia de exactitud de los resultados.

C) Contenidos actitudinales:

1.– Valoración de la precisión, simplicidad y utilidad de la matemática y el lenguaje matemático para representar, comunicar o resolver diferentes situaciones de la vida cotidiana y del conocimiento científico y tecnológico.

2.– Sensibilidad, interés y valoración crítica ante las informaciones y mensajes de naturaleza matemática y el uso que de ellos se hace.

3.– Reconocimiento y valoración crítica de la utilidad de la calculadora y otros instrumentos para realizar cálculos e investigaciones matemáticas.

4.– Confianza en las propias capacidades para afrontar problemas y realizar cálculos y estimaciones numéricas.

5.– Disposición favorable a realizar o estimar medidas cuando la situación lo aconseje.

6.– Sensibilidad y gusto por el cuidado y la precisión en el uso de los diferentes instrumentos de mediada y en la realización de mediciones (revisión sistemática del resultado de las medidas directas, aceptándolas o rechazándolas según se adecuen o no a los valores esperados, hábito de expresar los resultados numéricos de las mediciones manifestando las unidades de medida utilizadas, ...).

7.– Curiosidad por investigar relaciones entre magnitudes o fenómenos

3.– LOS SERES HUMANOS Y LA SALUD

A) Contenidos conceptuales:

1.– Características de un ser vivo.

2.– Niveles de organización de la materia viva. Los organismos como sistema: sistemas, aparatos y órganos.

3.– Gizakia sistema biologiko gisa. Anatomia eta funtzio nagusiak.

4.– Elikadura-funtzioak. Elikagaiak eta dietak. Ura eta haizea elikagai gisa. Hauen kutsadura gaixotasun-iturri gisa. Elikagaien kontserbazioa.

5.– Erlazio-funtzioak. Nerbio-sistemak osasuna mantentzeko duen egitekoa (loa, atsedena, estresa,...). Drogak eta hauek nerbio-sisteman eta osasunean duten eragina.

6.– Ugalketa. Sexualitatea eta ugalketa. Metodo antikontzeptiboak gizon eta emakumeentzat eta ugalketarako teknika berriak.

B) Prozedurazko edukiak:

1.– Organoak eta sistemak irudikatzea, eredu anatomiko, atlas, diapositiba eta marrazkien bidez.

2.– Osasunari buruz iturri desberdinetatik -sinismen herrikoiak ere barne- lorturiko informazioa tratatzea. Datu eta iritzien artean bereiztea.

3.– Norberaren dieta aztertzea eta dieta orekatuak diseinatzea.

4.– Osasunari buruzko gaien inguruko eztabaidak egitea: elikadura, drogak, kontzepzioa eta kontrazepzioa.

5.– Egutegiak diseinatzea prebentzio-planak, botiken erabilera eta beste ohitura osasungarriei buruzko planak burutzeko.

6.– Gizakiak erabiltzen duen ura edangarri bihurtu, garbitu eta desinfektatzeko teknikei buruzko eztabaida.

7.– Elikagaiak eta botikak behar bezala kontserbatu eta kontsumitzeko erabilitako teknikak ezagutzea.

8.– Lehen sorospeneko teknikei buruzko eztabaida.

9.– Gorputzaren tenperatura eta odol eta gernu analisietan jasotzen diren datu batzuk interpretatzea.

C) Jarrerazko edukiak:

1.– Tolerantzia eta errespetua ezaugarri pertsonalek (jatorrizkoak nahiz ezaugarri fisiko eta psikologikoak) eragindako diferentzia indibidualekiko, integrazioa sustatuko duten jarrerak aztertu eta garatuz, testuinguruak eta pertsonak normaltzearen bidez.

2.– Norberaren gorputzaren aukerak eta mugak ezagutu eta onartzea, gorputzaren funtzioak hobeto ezagutzearen bidez.

3.– El ser humano como sistema biológico. Anatomía y funciones principales.

4.– Funciones de nutrición. Los alimentos y las dietas. El agua y el aire como nutrientes. Su contaminación fuente de enfermedades. La conservación de los alimentos.

5.– Funciones de relación. El papel del sistema nervioso en el mantenimiento de la salud (sueño, descanso, stress, ...). Las drogas y sus efectos sobre el sistema nervioso y la salud.

6.– La reproducción. La sexualidad y la reproducción. Los métodos anticonceptivos para ambos sexos y las nuevas técnicas de reproducción.

B) Contenidos procedimentales:

1.– Representación de los órganos y sistemas mediante modelos anatómicos, atlas, diapositivas y dibujos.

2.– Tratamiento de la información procedente de distintas fuentes, incluidas las creencias populares, referentes a la salud. Distinción entre datos y opiniones.

3.– Análisis de la propia dieta y diseño de dietas equilibradas.

4.– Realización de debates acerca de temas de salud: alimentación, drogas, concepción y anticoncepción.

5.– Diseño de calendarios para llevar a cabo planes de prevención, uso de medicamentos u otras costumbre saludables.

6.– Discusión sobre técnicas para potabilizar, purificar, desinfectar el agua que se utilice para el uso humano.

7.– Reconocimiento de las técnicas utilizadas en la conservación y uso adecuado de los alimentos, los medicamentos, etc.

8.– Discusión sobre las técnicas de primeros auxilios.

9.– Interpretación de la temperatura corporal y de algunos de los datos presentes en los análisis de sangre y orina.

C) Contenidos actitudinales:

1.– Tolerancia y respeto por las diferencias individuales que tienen su origen en características personales, tanto de origen, como corporales y psicológicas, analizando y desarrollando actitudes que favorezcan la integración a través de la normalización de contextos y personas.

2.– Reconocimiento y aceptación de las posibilidades y limitaciones del propio cuerpo a partir de un mayor conocimiento de sus funciones.

3.– Osasuna zaintzeko ohitura prebentiboak hartu eta garatzea, pertsona bakoitzak bakarka nahiz gizartean gaur egun dituen ohituren azterketa abiapuntutzat harturik.

4.– Osasunaren eremuko aurrerapen zientifiko eta teknologikoekiko interesa eta balorazio kritikoa.

4.– SISTEMA MATERIALEN OREKA.

A) Kontzeptuzko edukiak:

1.– Unibertsoa. Konposizioa. Astro-motak.

2.– Eguzki-sistema. Konposizioa. Kokapena.

3.– Lur planeta eta bere satelitea, Ilargia. Kokapena eta mugimenduak.

4.– Ekosistemak. Gizakien arteko eta gizakien eta ingurunearen arteko erlazioak.

5.– Gizakien eta ingurunearen arteko elkarreraginak. Faktore abiotiko nagusiak: klimatikoak, edafikoak, topografikoak, eta abar.

6.– Ekosistema-ereduak bilakaera-fase desberdinetan. Adibideak Euskal Herrian. Lurreko ekosistenmaeredu batzuekin konparaketa posiblea.

7.– Eraginak. Motak. Naturalak eta gizakiarenak. Adibide nagusiak historian zehar. Gaur egungo adibideak Euskal Herrian. Planetako ingurugiro arazo batzuk.

8.– Ingurugiroa artatu eta hobetzeko ekintza berreskuratzaileak.

B) Prozedurazko edukiak:

1.– Lurra eta Ilargiaren kokapen eta mugimenduekin erlazionaturiko fenomeno naturalak interpretatzea (urtaroak, klimak, eguna eta gaua, ilargi-faseak, eklipseak).

2.– Simulazioak eta maketak erabiltzea sistema naturalak bisualizatzeko eta hauetan gertatzen diren fenomenoak interpretatzeko.

3.– Eguzki-Lur-Ilargiaren maketak egin eta interpretatzea.

4.– Gorputz zerutar hauen mugimenduen grafikoak egin eta interpretatzea.

5.– Eguzkia eta Ilargia behatu eta aztertzeko tresnak erabiltzen jakitea.

6.– Era orotariko mapak erabiltzea orientatzeko, sistema kokatzeko, eta abar.

